

Bigarren txistea

Joxean AGIRRE

Mugaren kontzeptuak tragediak iradokitzen dizkigu, baina baita mila istorio xelebre ere. Galdetu bestela Josu Goia Berako alkate ohi eta HBko Mahai Nazionaleko kide ohiari. “*Encuentros con la Guardia Civil*” izeneko liburu bat atera zuen. Hainbat istorio barregarri kontatzen ditu, eta askok mugarekin lotura dute.

Nik irakurri dudan mugei buruzko txistirik onena nekazari poloniar bati buruzkoa da. 1939an Alemaniak eta Errusiak herrialde hori hartu zutenean, maparen gainean marraztutako mugak etxalde bat banatzen zuen erdiz erdi, eta nekazariari galdetu zioten ea nongoa izan nahi zuen, errusiarra ala alemana, eta honek, aukeratu behar bazen, alemana izatea nahiago zuela erantzun omen zuen, Errusian hotz handiak egiten zituelako.

Magrisen “Danubio” bera ere mugei buruzko liburu bat da, eta hasieran bertan agertzen diren etxe batzuek teilatuko isuri batetik ura ibai horretara botatzen dute, eta bestetik Rhinera.

Anjel Larrañagari uste dut entzun niola bera jaio zen auzoan bazela etxe bat sukaldean Azpeitian eta beste guztia Azkoitian zuena.

Umeak ginenean, mugen auzi hau misterioz betea iruditzen zitzaigun, pauso bat aurrera eman eta Errezilen baixeunden, eta atzera eman eta Azpeitian, Zumaiako flyscharekin Algorrin gertatzen den antzera: pauso bat aurrera ematen duzu eta 10.000 urte joan zara aurrera historian, pauso bat atzera eman eta 10.000 urte atzera.

Mugei buruzko istorioekin ari garela, entzun eta ikusi dudan bigarren txistea oso berria da. Orain hiru aste, Donibane

Garaziko souvenir denda batean ginela, espainiar jubilatutako bikote bat sartu zen “*France*” jartzen zuen oroigarri (iman bat nahi zuten) baten bila, familiakoen aurrean seguru asko Frantzia egon zirela frogatu nahi zutelako, eta ez zuten aurkitu, denda horretako souvenir guztiek “*Pays Basque*” jartzen zutelako. Haserretu egin ziren eta dendariaren aurrean hasi ziren kexatzen: «*Ahora los vascos vienen aquí para vender sus ikurriñas*», zioten. Saltzaileak gazteleraz zekien eta agertu zien Donibane Garazi Donostia edo Bilbo bezain Euskal Herria zela. Konta ziezaikeen hiriburu hori Nafarroako Erresumako parte izan zela artean Espainia ezer ez zenean, baina zertarako, ez zuten entzuteko itxura gehiegirik eta ezer erosi gabe alde egin zuten, marmarrearrean, kalean barrena, “*France*” jartzen zuen iman baten bila. •

Paparreko txapak

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Ez dakit zenbateraino izan zen hala, baina irudipena daukat gure ume-garaian behin eta berriz jartzen genituela txapak paparrean. Eskolako ez-dakit-ze jaialdi egiten zenean, aurpegia pintatzeko txokoaren inguruan egoten zen txapak egiteko aparatua hori, eta ondoan paperak, eta errotuladoreak, eta guraizeak, eta beste. Edo herriko jailetan, puzgarrien eta plastikozko trikimakoen txokoaren inguruan. Edo ez-dakit-ze kausagatik helduak juntatu behar baziren plazaren azpian eta umeok egon behar bagenuen hango izkinaren batean denbora pasatzen, han ere berdin. Aparatu hura nola erabili jakiten zuen pertsona bat egoten zen bertan; laguntzen zigun gure *obra maestra* txaparen neurrian mozten, metal

zation pegatzen, eta, begira geratzen gintzaizkion bitartean, aparatua hartan kokatzen zuen txapa eta goitik behera mugitzen zuen “palanka” hura: eta *klak*. Ez dakit zenbateraino izan zen hain kontu errepi-katua. Askotan egin ez bagenuen ere, oso gogoan daukat txapan zer idatzi pentsatzen, nola apaindu erabakitzen, metal boro-robilean txukun-txukun pegatzen eta *klak* egindakoan eskuan hartu eta orratzarekin kamisetak zulatzen igarotako denbora.

Geroxeago, bestek diseinatutako txapak jantzi genituen. Egin genuen zulo bat ez-dakit-zeren alde, zulo bat ez-dakit-zeren kontra. Fijatu ginen ez-dakit-noren paparrean eta esan genion “agur” elkarri, txapa iguala generamalakoa. Harrapatu genuen trukotxoa, orratza bere lekutik

sartzeko-ateratzeko, hatz puntarik ziztatutako gabe.

Geroxeago, jaio zen Euskaraldia eta hedatu zen paparreko txaparen presentzia. Geroxeago, heldu zioten eskutik elkarri, euskarak eta paparreko txapak. Geroxeago, iritsi ziren bigarren, hirugarren Euskaraldiak. Eta geroxeago, egitasmoaren laugarren edizioa hasi berri denean, nahi nituzke soinean hartu euskaraz eta euskaratik elkar mugituz egingo ditugun borroken beste hamaika txapa: Aroztegiko zazpi alde, herri palestinarren alde, erresistentzia transfeministaren alde, gorputz disidentearen alde, ameslari porrokatuen alde, grebalari nekazarien alde, lurraren defentsaren alde eta makroproiektu askotari-koen kontra. •